


KILOMETROAK 2020

AMASA | VILLABONA | ZIZURKIL



Korri, pumpa, ttak.

KILOMETROAK 2020 AMASA | VILLABONA | ZIZURKIL



ZUBIMUSU
IKASTOLA



ikastolenekartea

HIZKUNTZA

berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako soluzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu.

Konpromiso sozialaren, zintzotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara...eta gainera euskaraz.

"Funtsezkoa ikusezina da begientzat"

Antoine de Saint-Exupery



INDUSTRIAS JAGUAR, S.A.L.

N-1 errepidea, 443 Km. - Apdo. 23 / 20150 VILLABONA (Gipuzkoa)

Tel.: +34 943 69 12 83 / Fax: +34 943 69 18 50

AURKIBIDEA

HITZAURREA	4
SARRERA	6
IKASTOLA	8
EREDU BERRIA	10
MILIMETROAK	12
ONURA SOZIALEKO EKIMENAK	14
AUZOLANEAN	16
PINPILIPAUXAREN BIDEA	18
ABESTIA ETA BIDEOKLIPA	22
EKINJOLASJAI	25
KPT	26
KILOMETROAK ASTEA	28
SEGURTASUNA ETA PREBENTZIOA	30
GURE INGURUA ETA MENDIMETROAK	32
KILOMETROAK IRUDITAN	34

KILOMETROAK KULTUR ELKARTEA

Lege Gordailua: D987-2020



> Aldizkarian zehar agertzen diren ikono hauek estekak dira. Horietan klik egiten baduzu informazio osagarria ikusi ahal izango duzu: bideoak, argazkiak...

KILOMETROAK IKASTOLAK DIRA

Lau urteko hausnarketaren ondoren pozik eta harro iragarri genuen Gipuzkoako ikastolek 2020ko Kilometroek eredu berri bat izango zutela. Zubimusu ikastolaren eskutik Gipuzkoako ikastolak 2019ko urrian heldu genion eredu berria ezartzeari. Pandemia-egoerak, baina, ez digu ekimena bere osotasunean gartzen utzi. Halere, goraipatu egin nahiko nituzke Zubimusu ikastolak egin dituen ahaleginak ekimena egoera "berrira" egokitzeko, eta Gipuzkoako ikastolen elkartasuna.

Egun bizi dugun egoerak gure egunerokoa aldatu egin du, eta kasu askotan, baita hankaz gora jarri ere. Sakon hartzen dugu arnas, eta birtualtasunean bilatzen ditugu gizarte-urruntzearen eta errutinaren aldaketen ondorioz gure baitan gertatzen denari bide emateko espazioak. Pixkanaka-pixkanaka konfinamenduaren triskantzaz ohartzen gara, eta jakin badakigu, -eta hala sentitzen dugu-, krisia ez dela soilik osasun arlokoa. Eta COVID-19aren garaiko emozio ugariaren kontzientzia hartzen ari garen honetan, funtsezkoa da eusten digun eta parte garen taldearen balio eta indarraren aitortza egitea.

Eta maite dugun talde baten parte garelako jakiteak, ikastolen mugimenduaren parte, gure lanaren erdigunean norberaren eta ingurukoen zaintza jartzen laguntzen digu. Batzuetan errealitateak gainditzeko bagaitu ere, garrantzitsua da ibilbide kolektiboak eraikitzea gure osotasuna babesteko eta elkarrekin egiten dugun lanaz gozatzeko. Ikastolen mugimenduak bere sorreratik egin duenari lehentasuna ematea, alegia. Krisi honek aukerak ematen dizkigulako mugimendu herritar, komunitario, euskaldun eta eraldatzaile hau bizirik mantentzeko. Pandemiarik gabe ere hori baitzen Kilometroak ekimenaren eredu berriaren helburua.

Mugimendu herritarretatik eraikitzen diren sareak boteretsuak eta ezinbestekoak dira, eta horien alde lan egiten jarraitzea funtsezkoa da gure burua modu kolektiboan zaintzeko, orainean eta etorkizunean.

Eta Gipuzkoako ikastolen jaiak horretarako aukera ematen digu. Kilometroak elkar zaintzarako sarea da. Kilometroak krisiari erantzun kolektiboa ematea da. Kilometroak taldea da. Kilometroak euskaraz bizitzea da. Kilometroak hezkuntza-eredu propioa eraikitzeko bidearen zati bat da. Kilometroak ikastolak dira.

Nekane Artola (Gipuzkoako
Ikastolen lehendakaria)

IZENA DUENA BADA!

Ez dakit urte zaila izan dela esateak aurten bizi izandako egoera ongi irudikatzen ote duen. Eta zaila izan ez bada aurtengo errealitatea, konplexua izan dela behintzat baieztatu dezakegu. Ez da ohikoa urtebete baino zertxobait gehiago irauten duen dinamika hiruzpalau hilabetez geldirik egotea, pandemia baten ondorioz. Ez da ohikoa, halaber, bere jaiegun handia ospatu baino hilabete lehenago, Euskal Herriko ikastolen jai guztiak ez direla egingo erabakitzea eta adieraztea. Beraz, Kilometroak jaiaren 2020. urteko ediziorik izan da ala ez da izan?

“Izena duena bada” esan ohi da. Korri, punpa, ttak! izan da aurtengo leloa. Zubimusu ikastola izan da horren sortzailea eta antolatzailea, eta haren ideiak eta jarduerak Amasa-Villabona eta Zizurkil sortu eta Gipuzkoako lurraldera lorautseztatu dira. Ez al zaizu iruditzen, irakurle maitea, izen asko daudela Kilometrorik izan ez dela esateko?

Maiz esaten dugu Kilometroak tradizioz, urriaren lehenengo igandearekin antolatzen den jai baino, urte osoko dinamika dela. Aurtengo jarduera oso dinamikoa eta sortzailea izan da. Aldizkari honetan irakurri ahal izango duzun bezala, ekintzaz eta ekimenez beteriko plangintza gau-

zatu dugu. Zizurkilgo herrigunera joaten naizen bakoitzean, bertan ikusten dut Pello Mari Otañori eskainitako grafitia. Grafiti bat marrazki bat besterik ez da, baina lan horren atzean gauza asko ezkututzen dira. Kilometroak antolatzeak eta gauzatzeak eskaintzen duen satisfazio handienetarikoa euskara eta euskal kulturaren alde lan egitea da. Pello Mari Otaño horren irudikapena izan da, zalantzarik gabe. Baina lan honen beste onuretariko bat herriko eragileekin sortzen den elkarlana da. Herriko udalekin, bai Villabonarekin, baita Zizurkilgoarekin ere. Herriko eragileekin; Mintzola Ahozko Lantegia, Teodoro Hernandorena Kultur Elkartea, Behar Zana, Oinkari, eta abar luze batekin. Eta modu batean edo bestean modu indibidualean parte hartu duten ehunaka pertsonarekin ere aritu gara elkarlanean.

Urtero, Kilometroak jai antolatzen ibiltzen garenontzat kezka bera errepikatzen da. Kilometroak “hemendik” beste herri batera doa, baina zein da bertan uzten duen ondarea? Euskara, transmisioa, komunikazioa eta umorea: horiexek dira gure hizkuntza berpizteko behar diren ezaugarriak. Kilometroak ekimenak martxan jarri duen Pello Mari Otaño bekaren bitartez, Aiztondo bailarako gazte bertsolari batzuk zirtoak ikertu eta ikastetxeetara eramateko material didaktikoa prestatzen ari dira. Hori izango da aurten Kilometroak ekime-

nak herriari eskainiko dion onura preziatua.

Kilometroak ekimenak bide luzea du, aurtengo ospakizuna 44. da. Duela bost urte, Kilometroak jai beste eredu baten arabera antolatzeke, “Kilometroak bidea” izeneko hausnarketa-prozesua jarri genuen abian, eta aurtengo Kilometroak edizioak horren aplikazioa izan behar zuen. Artikulu honen hasieran esaten genuen bezala, ez da ohiko urtea izan, eta, horren ondorioz, seguru aski, ez ditugu gauzatu egin nahi genituen gauza guztiak. Baina gauza batez bai harro egon gaitezkeela; hausnarketa-dinamikak lan egiteko mentalitate berri bat jarri du abian, eta horretan, azpimarratzekoa da, Zubimusu ikastolak ez ezik, Gipuzkoako gainontzeko ikastolek ere izan duten inplikazioa. Oraingo honetan ere auzolana indartuta atera da.

Irailaren 28tik urriaren 4ra bitartean, Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean, “Kilometroak historian zehar” erakusketa izango da ikusgai. 1977an hasi eta gaur arte, Kilometroak jaiaren edizio bakoitzak bere “panela” izango du; 44. urtekoa, hain zuzen, Amasa-Villabona-Zizurkil 2020. urtean antolatu den Kilometroak jaiari dagokiona da. Izan ere, izena duena bada, eta jarraituko du izaten!

Mikel Egibar (Kilometroak Kultur Elkarteko koordinatzailea)

ZUBIMUSU IKASTOLA BIZI-BIZIRIK

Kilometroak jaiaren eredu berria mar-txan jartzeko zein toki hoberik Amasa-Villabona eta Zizurkilgo Zubimusu ikas-tola baino? Aldi berean iritsi dira biak, pa-rekatuta. Kilometroak jaiaren eraldaketa-rekin bat egin dute Zubimusu ikastolako berrikuntzek ere, bai ereduari nola funtzio-namenduari begira. Amasa-Villabona eta Zizurkilgo Kilometroak jaiaren 'Korri, punpa, ttak' leloarekin ere erraz topatuko dugu parekotasunik. Zubimusu ikastola Santio ikastola bezala sortu zen Zizurkil-en 1965. urtean (Korri). 2014. urtean, Zubimu-su kooperatiba sortu zen (Punpa). Ondo-rengo urteetan aldaketak etorri ziren: fun-tsezkoena 2Zia proiektua bera, eta hari lotuta etorri ziren eraikinei lotutako be-rrikuntzak, metodologia berriak eta Kilo-metroak jaia antolatzeko ardura (Ttak).



Zubimusu ikastolaren eredu naturalari erantzun nahian eratu zen orain sei urte kooperatiba, eta ondoren etorri dira ku-deaketa eta pedagogiari lotutako gaine-rako berrikuntzak. Indar handiko ikastola da Zubimusu, oinarrian duen 2Zia proiektu berritzailea bezalaxe, bizi-bizirik da-goena. Ikaslea bera da gure ikaskuntza-prozesuko ardatza. Irakaslea, berriz, ikas-learen bidelagun, elkarlanean eta kon-fiantza giroan, ikasleen gaitasunak ga-ratu eta zailtasunak kudeatzea helburu duena.



Eraldaketa horretan, Zubimusu ikastolak egituraketari, ikastolek historikoki egin duten ibilbideari, komunitatearen parte-hartzeari nahiz herritarren atxikimenduari erantzuna ematea lortu du. Eta horretaz baliatu gara pedagogikoki aldaketa egin ahal izateko. Q, K, K bidea jarraitu dugula diogu: Kalitatezko Q-a 2010. urtean eskuratu ondoren, Kooperatiba sortu baikenuen 2014an, eta Kilometroak jaia etorri baita 2020an.

Azken hori ere ez da, inondik ere, saiakerarik gabeko bidea izan. 2014-2015 ikasturteaz geroztik, urtez urte aurkeztu baitugu Kilometroak jaia gure ikastolak, Zubimusu ikastolak, antolatzeke eskaera. Gure helburuak zehaztu, gure beharrak aipatu eta izugarritzko ilusioarekin aurkeztu genuen gure lehen txostena, baita ondorengo guztiak ere. Ilusioz eta grinaz beteta. Eta azkenean iritsi zen 2020an Aiztondo bailaran lehenengoz Kilometroak jaia antolatzeke erronka, ardura, lana eta poza.

Geroztik, erronka handi horri erantzun nahian, elkar-lanean gabiltza: irakasle, ikasle eta gurasoak bide berean. Pausoz pauso egin dugu aurrera: hastapen taldeetan bilduz lehenengo, erantzun bikaina izan zuten pintxo-tertuliak antolatuz gero, batzorde ezberdinak eratu, eta arloka bereizita lanean jarraian.

Ezin ahaztu 2018ko ekainean Zizurkil eta Amasa-Villabonaren artean antolatu genuela Milimetroak festa. Kilometroak jaiaren aurrekari modukoa izan zen, entsegu txiki bat. Milimetroak festaren baitan, pozarren iragarri genuen 2020. urtean, azkenean, gure ardura izango zela Kilometroak jaia antolatzea.

Tartean, COVID-19ak, tamalez, nahikoa baldintzatu du Kilometroak 20 jaiaren antolaketa-lana. Pande-

miaren eraginez, urte berezia izan da aurtengoa, eta hainbat asmo bertan behera uztera behartu gaitu egoerak. Baina aurrera egiten jakin dugu, eta pozik gaude egin dugun bidearekin. Urriaren 4ko Kilometroak jaiaren ordeiz, beharrezko segurtasun-neurri guztiak betez, Kilometroak astea antolatuko dugu irailaren 28tik urriaren 4ra. 44. edizioa ezohikoa izango da; baina etorri bezala, beste herri batera joango da. Zubimusu ikastolaren 2Zia proiektuak, ordea, bizi-bizirik jarraituko du, eta noski, etorkizun luzean ere hala izan dadin jarraituko dugu lanean.



Ana Santamaria

(Zubimusu ikastolako zuzendari pedagogikoa)

Nerea Zumega

(Zubimusu ikastolako zuzendari gerentea)

Gaizka Ezeiza

(Zubimusu ikastolako Kilometroak jaiaren koordinatzailea)

Mikel Egibar

(Kilometroak Kultur Elkarteko koordinatzailea)



1965. urtean sortu zen gaur egungo gure Zubimusu ikastola. Udana zen, uztaila, hain zuzen ere. Udan seme-alabak euskal giroan hazi nahi zituen Zizurkil eta Villabonako guraso-talde batek eman zituen ikastola sortzeko lehen urratsak. Zizurkilgo Zubimusu etxea izan zen guraso haiek erabili zuten lehen eraikina. Pixkanaka-pixkanaka, umez betetzen joan zen eraikin hura, eta, taldeak handitzearekin batera toki arazoak sortu zirenez, Villabonako Zentro eraikinean hutsik zeuden gela batzuk erabiltzen hasi behar izan zuten. 1973-74 ikasturtean, OHO bezala ezagutu genuen lege berria iristean, garai hartan zeuden beste ikastetxe batzuekin bateratu behar izan zuen ikastolak, eta harrezkero dirau Zubimusu Ikastolak. "Korri" egiteari Zizurkilen ekin genion eta Villabonan jarraitu, Zubimusu zubiaren bi aldeetan mugitu izan baikara beti.

Behin bide hori "Korri" eginez abiatuta, 2014. urtera iritsi ginen, eta urte hartan "Punpa" momentua iritsi zen. Ikastolak ibilbide bat egina zuen ordurako, eta bidean geldiyune bat egiteko garaia iritsi zen, hausnarketa eta gogoeta egiteko abagunea;

eta horrelaxe bihurtu zen gure ikastola kooperatiba. Urte hartan, ikastolaren biziraupenari eta etorkizunari begira jarri, eta, Ikastolen Elkarte-ko gainerako ikastola guztiek emandako pauso bera emanez, kooperatibaren bideari heldu zion. Urte hartan hartu zuen ikastolak Zubimusu izena. Geroztik, kooperatiba integrala eta parte-hartzailerik da gurea. Kooperatiba-ereduan oinarritutako hezkuntza-komunitatea; guraso, ikasle, laguntzaile eta langileen parte-hartze zuzena duena. Gure ikastolan ikaslea da ardatza, eta, giza baliotetan oinarrituta, herria hobetuko duten pertsona euskaldun, kritiko, kooperatibo, ekintzaile eta sortzaileak heztea du helburu.



"Punpa" garai hark aukera eman zigun eten bat egin eta etorkizunari begira jartzeko. Kooperatiba bilakatze hutsa ez zen aski, haratago joan nahi genuen. Izan ere, pedagogian pauso bat eman beharra genuen, eta orduan etorri zen "Ttak" egiteko unea; hots, gure etorkizuna irudikatzeko eta pedagogiari buelta bat emateko momentua. Beraz, pedagogia berritzaileak, neurozientziak guztiaren inguruan formazioa jaso, eta ikastola hankaz gora jarri genuen. Lehendabiziko pausoak Zizurkilgo eraikinean eman genituen, gure proiektua martxan jartzeko espazioak egokitu



behar izan genituen, eta hor lehen obrak. Ondoren, Villabonako Txermin eraikinekoak etorri ziren. Horrela hasi ginen gure proiektua eraikitzen, gure 2ZIA proiektuari forma ematen. 2ZIA, Konfiantzaren Pedagogiaz gain, beste hainbat eredutatik edaten duen proiektua da. Proiektu honetan ikaslea gaitasunez beteriko izaki bezala ulertzen dugu. Ikaslea bera ikaskuntza-prozesuaren ardatz bihurtzen da, haurraren sinesten dugulako. Ikasleak bere buruarengan, besteengan eta bere inguruan konfiantza sentitzen duen heinean, bere gaitasunak garatu eta zailtasunak kudeatzeko baliabideak eskuratzen ditu. Irakaslearen egitekoa ikaslearen hezkuntza-ibilbidean bidelagun izatea izango da, eta haren gaitasunak, beharrianak eta zailtasunak deskubritzen laguntzea. Horretarako, baldintza egokiak sortu beharko ditu. Ikastolan diseinatutako espazioetan eta denbora-antolaketan haurraren garapen naturala errespetatuko da. Ikasleari aukera ani-



tzak eskainiko zaizkio autonomia garatzeko, adin desberdineko haurrekin elkarrekintzan aritzeko eta haurrak berezkoak dituen senak lantzeko.

Eta honek guztiak eraman gintuen Kilometroarako gure hautagaitza aurkeztera, Kilometroak antolatze beharra izatera. Hirutan aurkeztu genuen gurea eta hirugarrengan egokitu zitzaigun, beharrezkoa baikenuen Kilometroak gure herrira, gure bailarara ekartzea. Gure ikastola Hezkuntza Eraldatzearekin bat dator, eta, gure proiektu pedagogikoaren izenak dioen bezala, proiektu bizia da, aktiboa, egokitzapenak, aldaketak behar dituenak. Ezin dugu ukatu Hezkuntza Eraldatzeak ekonomikoki esfortzu ekonomiko handia eskatzen duela: eraikinetan obrak egin behar dira, gelak askotariko material berriz hornitu behar dira, teknologia berriak sartu, profesionalak trebatu, eta abar. Zubimusu ikastolaren eskaintza eta zerbitzuak hobetzeko helburuz jarraituko dugu lanean.



KILOMETROAK

I Eredu berrial

Azken bost urte hauetan Kilometroak jai-eredua ertz eta hegi guztietatik aztertzen aritu gara. Gauza asko aldatu nahiko genituzke, baina, Kilometroak herriaren ondarea dela jabeturik, herrian eta herritik nahi denari ere erreparatu behar diogu. Horregatik, behin baino gehiagotan, doikuntzaz hitz egin dugu; alegia, garaian garaiko egoerari kasu eginez, Kilometroak jaiaren formatua aldatu eta egokitzen jakitez.

Zeinek esango zigun 2020. urte honetan, eredu berria martxan jartzeko aurreikusita genuen urte honetan, pandemia dela eta, eguneko jaia bertan behera utzi beharko genuela? Bada, zailtasun guztien gainetik Kilometroak jaia egiten saiatu garen arren, ez da posible izan. Zalan-

tzarik gabe, eredu berriaren barne-lanketa, aurreten bizitzen ari garen une zail honetarako, oso lagungarria izan da. Izan ere, Kilometroak jaiaren antolaketa bere zurruntasunetatik urrundu eta moldagarriago bilakatu da, eta, horri esker, plasztizitate handiagoarekin indartu nahi izan dugu jaia. Bestela esanda, Kilometroak jaia erresilientziaren bidean jarri dugu.

Eta horixe bera da gure jaia: euskara eta euskal kulturarekiko metafora modukoa. Estatu gabeko nazioek hamaika eta bi egin behar dituzte bizirauteko. Maiz esan ohi da: sormenik gabe desagertzea dela gure bide antzua. Kilometroak euskararako eta euskal kulturarako herriko plaza da, eta plaza zer ote da? Komunitatea, euskal komunitatea.



Globala eta lokala, postmodernismotik datozkigun bi kontzeptu trinko dira. Teknologia berrien bitartez lokalaren eta globalaren arteko mugak asko lausotu dira, eta garai batean urrutitik zetorren global kontzeptua bat-batean gure etxeko ordenagailuaren pantailan begi-bistan daukagu. Lokala, berriz, harreman zuzena da, ahozko komunikazioa, esperientzia pertsonal zein kolektiboa. Zalantzarik gabe, globalaren eta lokalaren artean oreka bilatu behar dugu; hori izan ezean, lokala eta txikia den guztia globalak xurgatzeko, asimilatze joera izango baitu.

COVID-19 pandemiarekin batera konfinamendua etorri zaigu. Hilabete luzeetan plazak hutsik izan ditugu; gure ordenagailuak, berriz, kea zeriela, jo eta su muga guztien gainetik jauzika ibili dira. Plazak betetzeko garaia iritsi den arren, berriro ere, birusak ez digu utzi guk nahi bezalako festa egiten. Hala ere, ziur gaudela aurki iritsiko dela berriro plazak bete eta euskarak bere tokia berreskuratzeko garaia.

Aurtengo Kilometroak jaiak, inoiz baino gehiago, kolaborazioa eta kooperazioa behar zituen, eta, kooperazioa aipatzearekin batera, parte-hartzea ere areagotu beharko genuke. Kontsumoa oso labainkorra den kontzeptua da, eta gutxituak diren hizkuntzek eta kulturek bizirauteko beren kontsumoa sustatzea beharrezkoa dela iruditzen zaigu. Eredu berriari lotuta kontsumoaren gaiari

buruzko hausnarketan ikusi dugunez, jaia edozein kulturaren zati garrantzitsua bada ere, kontsumoak "norabide bakarreko" kulturaren erabilera ekarri du berekin. Eta joera horretatik desbideratze edota nahi ez ditugun egoerak sor ditezkeela ohartu gara. Kultura ondare komuna denez, denok parte hartzen dugu kulturaren "osasunean". Euskal Herriko ikastoletatik abiatuta, Kilometroak jaia, parte-hartzearen bitartez, "harrobi kultural" bihurtu nahi dugu, eta harrobi kultural horretatik sortuko den horrentzat guztiarentzat zein da "oholtza" onena? Herriko plaza, Kilometroak jaia den euskal komunitatearen plaza.

Euskal komunitateak plaza behar badu, Euskal Herrian plaza asko euskal hiztunez osatuta daude. Pandemiarekin, gure nazioa administratzeko dauden hutsuneak agerian geratu dira berriz: bi estatu, hiru administrazio, arau eta irizpide ezberdinak. Txillardegi zioen bezala, "euskara lurralde libre bakarra da", euskal nazioa, euskararen lurraldea da. Hori dela eta, eredu berriaren ezaugarrietako bat moldatzeko gaitasuna izan da, eta bide horri eutsi nahiko genioke, auzolanean jarraituz, euskarari nahiz euskal kulturari dagokien tokia emateko. Hori dela eta, jarrai dezagun Herri Urrats, Nafarroa Oinez, Araba Euskaraz, Ibilaldia eta Kilometroak jaien bidez euskara zein euskal kultura plazaratzen; unean uneko egoera eta baldintzetara egokituz.

MILIMETROZ MILIMETRO

Kilometroak osatzen diral

NOLA ANTOLATZEN DA KILOMETROAK JAIA? MILIMETROKA!

Galdera-erantzun hauek izan ziren 2018. urtean Amasa-Villabona eta Zizurkilen Zubimusu ikastolak jai bat antolatzeko ideiaren jatorria. Ikastolak, kooperatiba bilakatu zenetik, behin eta berriro aurkeztu izan du bere hautagaitza Kilometroak jaia antolatzeko. Urteak aurrera joan ahala, eta Kilometroak jaiaren azterketaren baitan landutako jai-eredu berriaren testuinguruan, Zubimusu ikastolak tamaina txikiko jai bat antolatu zuen, egun osokoa. Laburbilduz, hauek dira jaiaren ospakizunarekin lortutako emaitzak:

- Ikastolako komunitatea indartuta, kohesionatuta atera zen.
- Ikastolaren proiektu pedagogikoa garatu eta zabaldu zen, haurren basoa ekimenaren bitartez.
- Jaia ikastolaren komunitatea baino haratago iritsi zen: herriko plazetan gauzatu zen.
- Xede ekonomikoa alde batera utzita, onura soziala eta zerbitzu publikoa eskaintzen zituzten ekimenak jarri ziren martxan.
- Euskarari eta euskal kulturari presentzia aktiboa eskaini zitzaion.

Bi urte geroago, azkenean, Kilometroak antolatzeko hautagaitza Zubimusu ikastolari onartu zitzaion, eta onarpenarekin batera, Kilometroak jaiaren eredu berria martxan jartzeko eskaera ere bai.

Eredu berriak, ezaugarri askoren artean, Kilometroak Gipuzkoako ikastola guztien jaia dela

azpimarratu eta ideia hori gauzatu nahi du. Ikastola guztiek badute zer esana, baita beren inguru sozialean xede edota nahiak aldarrikatzeko beharra ere. Horrela, "ikastolatik plazara!" ideia lantzen hasi ginen, eta, asmo horrekin, 2018. urteko Milimetroak jaiarekin esperimentatu genuen ildotik, herriarekin batera hainbat ekimen antolatzea planteatu genuen.

Izan ere, kultura txikitasunetik eraikitzen dela sinesten dugulako, ikastolak "harrobi kulturalak" direla azpimarratu nahi dugu.

Bi ezaugarri horiek oinarri hartuta, aurtengo Kilometroak jaiaren baitan Gipuzkoan barrena Milimetroak jaiak antolatzeari ekin genion.

Oarsoaldeko Milimetroak

Lau ikastolaren artean antolatu genuen jaia: Oreta ikastola, Pasaia Lizeoa, Hautzaro ikastola eta Zubimusu ikastola.



Oarsoaldeko Milimetroak jaiaren xede nagusiak honako hauek ziren:

- Naziotasuna: Euskal Herriko zenbait toki ikasleen topagunea izatea.
- Jaiaz gozatzeko praktika erakargarria gauzatzeara.
- Herri-hizkera desberdinek topo egitea. Bai euskalki desberdinak, bai erdal guneetan euskara batuan moldatzen doazen eta moldatu behar diren hizkerak.
- Eredu bat, esperientzia bat, eskaintzea euskalgintzari eta bereziki Ikastolen jaiei.

Tolosaldeko Milimetroak



Sei ikastolaren artean antolatu genuen jaia: Uzturpe ikastola, Laskorain ikastola, Inmakulada ikastola, Anoeta herri ikastola, Irurako ikastola eta Zubimusu ikastola.

Tolosaldeko Milimetroak jaiaren gai nagusia honako hau izan zen:

Inklusioa: "Mundu ko lore!". Inklusio kontzeptua zabala da. Milimetroak jaialdiarekin kulturartekotasunari garrantzia eman nahi diogu. Gure herrira iristen diren etorkinek gure kultura eta hizkuntzarekin gustura sentitzeko kontzientzia piztu eta egoera praktikoak landu nahi ditugu.

Eta xede nagusiak honako hauek izan ziren:

- Ikastolen komunitatea "harrobi kulturala" dela erakustea, herrigintzan aritzen dela.
- Herriko beste eragileekin batera elkarlanean jai

bat antolatzea.

- Eskualdeko ikastoletako ikasleen artean harremana lantzea eta ikastolako komunitatea indartzea.
- Kilometroak Gipuzkoako ikastolen jaia denez, Milimetroak antolatzea.
- Euskaraz biziz eta euskaraz gozatuz antolatzea jaia.
- Ikasleak protagonistak bihurtzea.
- Gurasoak pintxo-tertulia batera gonbidatuz, jaiaren partaide bihurtzea.

Batzuetan emaitza bezain garrantzitsua prozesua dela esan ohi da. Bada, gure kasuan ikastola guztien artean bizi izan dugun elkarlana oso aberasgarria izan dela azpimarratu nahi dugu.

Zoritxarrez aurtengo Milimetroak ospatzeko astebete besterik falta ez zenean, pandemiaren aurrean konfinamenduaren neurria iritsi zitzaigun. Milimetroak gauzatzeko "plazak" bero-bero egon arren, prestatutako guztia karpeta batean sartu eta tiradera batean gorde behar izan dugu. Berriro diogu: gorde egin dugu. Izan ere, horren ekimen aberatsa ezin da karpeta batean geratu, plaza behar du, Kilometroak behar du. Horregatik, 2020, 2021, 2022 urteetan Kilometroak antolatzen jarraituko dugu.

Milimetroak egin gabe nola arraio egingo ditugu Kilometroak?



EUSKARA ETA EUSKAL HERRIA HURBILDU TXANGOEN, PELLO MARI OTANOREN ETA ZIRTOEN BIDEZ



2020ko Kilometroak jaiak berritzailea izateko helburua du. Festaren eredu tradizionala onenak emanda zegoela ikusirik eta aurrez ondo egindakoa aintzat harturik, Gipuzkoako ikastolen eta herrialdeko jendartearen eskakizun berriei egokituko zaien eredua zehazten aritu da antolakuntza gaurdaino.

Ilde horretan, 2020. urteko Kilometroak festak Zubimusu ikastolaren aldeko sostengu ekonomikoa jasotzeko helburua izateaz gain, herri onurarako ekimen bat ere finantzatu nahi izan du. Baina zein ekimen gauzatu? Edo gure herrietan indarrean dauden zein ekimen lagundu? Horra hor ikastolako komunitateari sortutako zenbait galdera.

2019ko maiatzean hamarnaka zubimusu-kidek ikastolan egindako pintxo-tertulian 2020ko Kilometroak jaiak landu behar zituena balioak zein ziren zerrendatu zituzten. Horien artean, euskararen eta euskal kulturaren sustapena, naziotasuna; eta ikastola eta euskal mundua komunitate migranteetara irekitzea nabarmendu ziren. Horretaz gain, balio horiek nola eta norekin landu nahi ziren ere definitu zen: herritar eta herri-eragileekin elkarlanean. Kilometroak jaiak gure hezkuntza-sisteman zenbaitek elikatu nahi duen publiko-pribatu dikotomia puskatu eta elkarlanerako gunen izan behar zuela ere erabaki zen. Eta bukatzeko, hori guztia barnebilduko zuen pertsonaia ezin ego kiago bat eskualdean bazegoela konturatu, Pello Mari Otaño bertsolari zizurkildarrari aitortza egitea erabaki zen.

Pintxo-tertuliako printzipioei jarraiki, onura sozialeko bi ekimen garatzea erabaki zen. Batetik, *Euskal Herria elkarrekin ezagutzen* ekimena martxan jarri nahi izan zen. Egitasmo honen helburua jatorri atzerriarrek eta "bertako" familien arteko harremanak sendotzea eta euskal mundutik urrun dauden pertsona horiei gure herriaren inguruko ezagutza zabaltzea zen. Baina nola egin hori? Amasa-Villabona eta Zizurkilgo komunitate migrante antolatuarekin elkarlanean, Euskal Herri luze-zabalean hiruzpalau txango egin ez. Horrela, Bizkaiko kostaldera, Arabako Errioxara, Baztanera eta Zuberoako Kakuetara txangoak programatu ziren modu ludiko batean komunitateen arteko harremanak estutu eta gure herriaren errealitatea ezagutarazteko. Dena prest zegoen momentuan COVID-19 malapartatua azaldu zen gure munduan, eta ekimena bertan behera gelditu zen.

Bestetik, Pello Mari Otañoren itzala baliatuz, Aiztondoko herritarrentzat eta bereziki bertako hezkuntza-komunitate osoarentzat erabilgarria izango zen proposamen pedagogiko bat sortzea erabaki zen. Ideia horretatik abiatuta, 3.000 €-ko saria duen Pello Mari Otaño ikerketa-beka jarri zen martxan, Zizurkilgo Teodoro Hernandorena Kultur Elkartearekin eta Amasa-Villabonan dagoen Mintzola Ahozko Lantegiarekin batera. Hasiera batean, bekaren nahia Pello Mari Otañoren inguruko ikerketa bat egin eta berau eskualdeko ikasleen artean zabaltzeko unitate didaktikoa garatzea zen. Otañoren inguruko hainbat lan zeudela ikusita, Aiztondoko emakume bertso-

larien inguruko ikerketa bat burutzeko beka plazaratzea erabaki zen. Hemen ere pandemiak eragina izan zuen, eta, lehen deialdian bekarako ikerlaririk aurkeztu ez zenez, epeak luzatu eta ikerketa-gaia zabaltzea erabaki zen. Azkenik, Tolosaldeko Harituz Bertsozaleen Elkarguneko kideek Aiztondoko zirtoaren inguruko ikerketa landu eta berau bertso-eskoletan zein ikastetxeetan aplikatzeko proposamen didaktikoa garatzeko proiektua helarazi zuten.

Zirtoa egunerokoan ematen diren ateraldi errimatu moduan defini daiteke; askotan, bertsolarien eta bertsolaritzaren inguruan erabili izan da gure herrian, eta, egun, oraindik ez zaio dagokion tokia airtortu jendartean. Gaiak duen interesa ikusirik eta Aiztondoko herritar guztiei zein hezkuntza komunitate osoari ekarpen bat egin diezaiokeela baloratuz, proiektua onartzea erabaki zen. Orri hauek baliatu nahi ditugu ikastolaren aldetik eskerrik beroena helarazteko Teodoro Hernandorena Kultur Elkarteko Joxin Azkueri, Mintzola Fundazioko Karlos Aizpuruari eta Harituz Bertsozaleen Elkarguneko Mikel Artola, Haritz Mujika, Oihana Iguaran, Beñat Iguaran, Unai Mendizabal eta Imanol Artola bertsolari eta ikerlariei.



KILOMETROAK FESTA, OINARRIZKO BALIOAK, URRATSAK ETA HELMUGA

| Tertuliatik bertsora, sustraietatik hostora |

Aski ezaguna da denontzat Kilometroak jaiaik beti agertu duen izaera komunitarioa. Heda-
pen zabaleko festa honek auzolanean du bere
oinarria, eta hori gabe ezinezkoa litzateke au-
rrera eramatea. Urte bakoitzak baditu bere
berezitasunak, eta, aurtengoan ere, nola ez,
ibilbide partikularra izan du gure festak.



Zubimusu ikastolaren komunitateak hasieratik
izan du topaketarako espazioen beharra. Fes-
taren ardura eskuratu orduko, herrialde honek
duen izaera propioaz bustitzea garrantzitsu-
tzat jo da. Izan ere, zer da, bada, ospakizun bat
oinarrian huraosatzen dutenen aldarrikapena
baino?



Ildo horretatik, festaren ardatz diren balio es-
pezifikokoak definitzeko, guztion ahotsak entzu-
teko espazioak ireki dira. Herrian, oihartzun
itzela eta babes zabala izan duten pintxo-
tertulien eskutik. Hasieran, ezohiko proposa-
mena bazirudien ere, sarritan elkartu da for-
matu honetan ikastolaren inguruan diharduen
komunitatea. Jaia herritik eta herriarentzat iza-
nik, ezin espazio egokiagorik eskaini!





Tertulia horiek argi utzi dute hasiera-hasieratik Amasa, Villabona eta Zizurkilek partekatzen duten ikuskera gaurkotua. Zeinen ondo ulertzen den egungo gizartean hainbat balio indartzeko beharra. Aitzitik, zein zaila den balio horiek bateratzea egitura bakar batean eta festa abiapuntutzat jota haien transmisio-





bide bilakatzea. Denon ahotan dantzan jartzen ditugu "aniztasuna", "familia", "euskal kultura"... Eta erronkarik handiena datozen belau-naldiei balio horien lekukoa pasatzean datza. Horretan dabil ikastola, hori da nahi dugun gizartea. Hori da sustraitzea nahi dugun hazia.

Kilometroak jaiak hari horri tiraka eman ditu urratsak, makro festa izaerari uko eginez. Ardatz nagusi diren giza helburuei men egiten saiatu da hasieratik. Lan-batzordeak ere mu-

gatu egin dira. Egitura kozkorra zuen antolaketan mardul batetik oinarrietara itzuliz. Festa herrikoia goa bultzatzea izan da helburu nagusia. Komunitateak horrela eskatuta. Herritik herrira. Handia, bere txikitasunean. Zuhaitz bat gordetzen duen hazia bezala.



COVID-19aren egoerak bete-betean hartu bagaitu ere, lanean jarraitu dugu. Ahal izan dugun neurrian, gure ahotsak uztartuz, Aiurri al-dizkariak sustatutako [BertsoVid19](#) ekimenean, gizarte bateratua garelako gogoratuz.



[BIDEOAK IKUSI](#)

PINPILIPAUXAREN BIDEA

| Kilometroak 2020 ipuina |

Korri, punpa, ttak. Iragana, oraina, etorkizuna.

Juan Kruz Igerabidek Kilometroak 2020 jaiaren leloaren eta logoaren aurkezpenean kontatu zigun ipuin musikatua duzue haxe.



Ikastolako komunitatea osatzen dugun ki-deok pintxo-tertulia bat egin genuen logoa eta leloa pentsatzen hasteko, eta han aipatutako ideiak, gure jaiaren ildo nagusiak, logoa eta leloa bera hartuta, Juan Kruz Igerabiderekin elkartu ginen, eta eskatu ipuin bat sor zezan jaiaren bidez zabaldu nahi dugun mezua islatuko zuena.

Eta haxe duzue emaitza. Seguru gaude guri bezainbeste edo gehiago gustatuko zaizuela.



[Ipuina Juan Kruz Igerabiden
hitzetan > BIDEOA IKUSI](#)

*Amona, zatozkit, otoi,
biloba laztan ezazu*
(Lizardi, Asaba zaharren baratza)

Korri-korri-korri

Ez hain aspaldi, baina ezta atzo goizean ere, amona euskarari ezpainak estutu zizkieten. Ia itoan zegoen.

Larri eta estu, korrika-korrika, biloba bi hurbildu zitzaizkion, biloba bi Villabonakoak, ezpainetan musu ematera, korri-korri-korri; beste bi Amasakoak, ezpainetan musu ematera, korri-korri-korri, beste bi Zizurkilgoak, ezpainetan musu ematera, korri-korri-korri, beste biloba batzuk Aiztondo guztikoak, ezpainetan musu ematera, korri-korri-korri.

Bilobak han, bilobak hemen, Euskal Herriko alde guztietatik agertu ziren, korri-korri-korri, amona arnasberritzera. Kilometro ugari egiten zituzten joan-etorrian. Biloba batzuk gauez aritzen ziren musu ematen, gaueko musueskoletan, korri-korri-korri; beste batzuk, egunez, musuikastoletan, korrika-korrika; zubiazpian ere jardun ziren batzuk, zubimusuikastoletan, korrika-korrika. Hasieran, urrieskolak ziren, gero herrieskolak, eta azkenik ugarieskolak, denak musuikasten.

Eta amona, arnasberritu.

Baina oraindik arnasnekez dago, biloba gehiagoren zain, korri-korri-korri, zeinek musu emango.

Ezpain irribarretsuek pinpilinpauxen antza omen dute. Ba, azkenean, musuen eraginez, pixkanaka pinpilinpauza bihurtuko den harra jaio zaio ezpainetan amonari. Miraria den, miraria ez den, etorri eta ikusi nola gertatu den.


punpa-punpa-punpa

Pinpilinpaua, tximeleta, mitxirrika, zer axola zer izango den har hori! Punpaka dabil amonaren ezpainenetan, punpa-punpa-punpa, hitzak janez. Bihotzaren pilotaria dirudi, punpa-punpa-punpa, alde batetik bestera, punpa-punpa-punpa, Villabonako erreboteko pilota bezala. Ameztoi amasarraren ametsetako paisaia dirudi, punpa-punpa-punpa, ametsetako landareak janez. Pello Mari Otaño zizurkildarraren Pampako bertso-punpakaria dirudi, punpa-punpa-punpa, urrutiko doinuak janez. Plazida Otañoren hitz pinpina dirudi, punpa-punpa-punpa, etxeko doinuak janez.

Eskuz esku dabil pinpilinpauxaren harra, punpa-punpa-punpa, partida bateko pilota hauskor bat bezala, pilotarien eskutik eskura, atzera-aurrera, txokora-zabalera, errebotera, kontu handiz, punpa-punpa-punpa. Bihotzaren pilotari horrek, punpa-punpa-punpa, kantu baten erritmoa sortzen du, ahotik ahora, aitona-amonengadik gurasoengana, gurasoengandik haurrengana: Ene amak aitari pinpilinpaua ekarri; laster-laster helduko dio haurtxoak ere horri, ene aitak amari, pinpilinpaua ekarri.

Eskuz eskuz dabil, bada, punpa-punpa-punpa, hitzak janez, sentipenak janez, burutazioak janez, belaunaldi batetik bestera, punpa-punpa-punpa.

Ezpain irribarretsuek pinpilinpauzen antza omen dute. Ba, azkenean, musuen eraginez, amonari pixkanaka pinpilinpauxaren harra pausatu eta beldarra agertu zaio ezpainenetan. Galtzeko zorian zeuden hitzak eta doinuak itsatsita geratu zaizkio. Miraria den, miraria ez den, etorri eta ikusi nola gertatu den.



ttak-ttak-ttak

Pinpilinpauxa, tximeleta, mitxirrika, zer axola beldarraren barruan dagoenaren izena! Eta, ttak, pinpilinpauxa hori laster jaioko da, eta ttak-ttak-ttak hasiko da hara eta hona, xurga honi, xurga hari, lorezti finez elikatzen.

Ttak, asmoak xurgatuko ditu, asmoak gustatzen zaizkio, asmoak asmatzen ditu. Ttak, egitasmoak. Ttak, gezurtasmorik ez, kalte egiten baitiote.

Ttak, forma zaharren gainean pausatuko da, txorro-morro-piko-tallo, ttak, eta xurgatu egingo ditu, eta, ttak, forma berriak amestuko ditu.

Ttak, auzolanean jardungo da beste pinpilinpauxekin, ttak, punta-puntako elikagaien bila, ttak, eta ilusioa sortuko du amonaren ezpainetan, ttak, etorkizuneko bideak amestuz. Ttak, amona xahar-xaharrari bizirauteko gogoia berrituko dio, ttak, gaztetu egingo du, soineko berriz jantzi, ttak, pinpilinpauxaren koloreak estanpatuko dizkio ezpainetan, Balentziagaren villabonatar estilorik finenean.

Ttak, amonaren ezpainak zabaltzen ari dira, ttak, pentsatzeko modu guztiak xurgatzen ditu pinpilinpauxak.

Ttak, amonaren ezpainak zabaltzen ari dira, ttak, sentitzeko modu guztiak xurgatzen ditu pinpilinpauxak, ttak, amonaren ezpainak zabaltzen ari dira, baina pinpilinpauxak ez du ondo digeritzen errespetu faltarik, amona, eme eta umeekiko bortxarik.

Ttak, amonaren ezpainak zabaltzen ari dira, pinpilinpauxak elikagai osasuntsuak nahi ditu, ttak, elikagai freskoak, gaurkotuak.

Ttak, amonaren ezpainak zabaltzen ari dira, ttak; ezpain irribarretsuek pinpilinpauxen antza omen dute. Ba, azkenean, ttak eta ttak eta ttak, amonaren ezpainetako pinpilinpauxa mundu zabalera hegaldatzen ari da. Miraria den, miraria ez den, etorri eta ikusi nola gertatzen den.

korri-punpa-ttak

Eta badoa pinpilinpauxa lorez lore, korri-punpa-ttak, herriz herri, korri-punpa-ttak, denboraz denbora, korri-punpa-ttak, izarrez izar, korri punpa ttak. Amonaren irribarreak zerua bilduko du alderik alde, korri-punpa-ttak.

ABESTIA ETA BIDEOKLIPA

korri, punpa, ttak



IRAGANA, ORAINA ETA ETORKIZUNA UZTARTZEN

Zubimusutarrok oso harro gaude gure komunitateko kideek egindako lanaz. Abesti eta bideokliparen egileak une oro izan dira Kilometroak jaia-
ren antolakuntzan, hasierako pintxo-tertulietako hausnarketetan, eredu berriaren finkapenean... Beraz, zerbait xumea baina edukiz betea egiteko gai izango ziren uste osoa genuen, eta halaxe izan da.

Abestiaren doinua ikastolako musikako irakaslearen Xabi Zubeldiak egin du, ibilbide zabala du

musikagintzan, bai Akelarre taldean, bai beste proiektu batzuetan ere. Hitzei dagokienez, Amaia Agirrerren esku geratu ziren. Amaiak, ikasle ohia izateaz gain, bertsolaritzaren lanketa egiten du ikastolan. Gainera, "Zubimusu gara" abestia ere, Xabi eta Amaiaren artean osatua da.

Halaber, bideoklipa osatzeko lanak Nagore Arin, Irune Alfonso eta Irene Larrañaga ikasle ohiek gauzatu dituzte. Nagore eta Irune Ikus-entzuzko Komunikazioan graduatuak dira, eta Irene Larrañagak Goi-mailako zikloa du Irudi eta Soinuan.

Xabi Zubeldia

Zer sentitu zenuen Kilometroak 20 jaiaren abestia egiteko aukera eman zizutenean?

Kanta egiteko esan zidatenean ardura eta ilusioa sentitu nituen. Ikastolako parte naizen heinean, alde batetik, kanta ondo egitearen ardura, eta, bestetik, erronka potoloa eta polita zen niretzat; beraz, ilusioz heldu nion lanari.



Zer izan duzu oinarri abestia osatzeko?

Argi nuen kantuan hainbat elementu agertu behar zutela. Orain arteko Kilometroak jai guztiei erreferentzia egin nahi izan diet, aurtengo leloa eta logoari ere bai noski, eta, azkenik, Zubimusu ikastolako adierazle den ZZIA proiektu pedagogikoari.

Nola islatu duzu hori guztia abestian?

Aurtengo leloak "Korri, punpa, ttak" dio, pilota-jokoari keinua egiteaz gain, iragana, oraina eta etorkizuna adierazten ditu. Horrela, abestiaren hasieran, Kilometroak jaien hastapenak eta iragana edo "korri" irudikatzeko, hirurogeita hamarreko hamarkadako musika-tresnak eta soinuak sartu ditut, orduko baxua eta bateria nahiz Hammond teklatuaren sonoritateak erabiliz. Gaur egungo soinuak ere badira, egungo baliabideak erabiliz, oraina, "punpa" edo eredu berriaren testigantza modura, eta, azkenik, "ttak" edo etorkizunaren seinale diren soinu futuristak sartu ditut. Bestalde, logoaren irudia oinarri hartuta, kantoren hasiera eta bukaera berdinak dira, "Korri,

punpa, ttak", pilota irudikatuz edo borobila itxiz, beste elementuak, estrofa eta estribilloaren birtartez aurkeztu nahi izan ditut abestiaren bukaran luzapena eginez, zati koral bat sartuz umeen ahotsekin. Erritmoa, berriz, bizia da, gure proiektu ZZIAri keinu eginez.

Amaia Agirre

Zer pentsatu zenuen abestiaren melodiari hitzak jartzeko erronka luzatu zitzaizunean?

Bi hitz gurutzatu ziren nire buruan, ohorea eta ardura. Baina, bide erdia egina zegoenez, ezin ba erdibidean geratu, eta gogoz hartu nuen erronka.

Nola izan zen prozesua?

Lehenik, ikuskizun-batzordeko kideekin bildu nintzen nolako letra nahi zen adosteko; umeek erraz ulertu, barneratu eta ikasiko zuten letra, tokian tokiko erreferentziak zituena, Kilometroak jaia eta ikastolaren balioak agerian uzten zituena: euskara, hezkidetza, auzolana nahiz transmisioa. Jarraian, melodiari hitzak jartzeari ekin nion. Nik doinua eginda jaso nuen, eta metrika horretara moldatu behar izan nuen. Buruhauste handienak estribilloa osatzerakoan izan nituen; alde batetik, abestiaren zati luzeena delako, eta, bestetik, estribilloaren garrantziaren jakitun naizelako. Abestia osatzeko esaldi motzak asmatzea, errimak behartu gabe sartzeko, hitz gutxitan asko esatea eta sonoritate aldetik belarrientzat gozagarri izatea izan dira oinarria.



**Nagore Arin / Iruñe Alfonso /
Irene Larrañaga**

*Zer sentitu zenuten Kilometroak 20ko abes-
tiaren bideoklipa egiteko erronka jaso zenute-
nean?*

(Nagore Arin) Ilusioa eta ardura sentitu ge-
nituen, proportzio berean. Lehenik, ilusioa:
guregan konfiantza hori jartzeagatik, eta
horrelako sormen-lan bat aurrera eramate-
ko aukera emateagatik. Bigarrenik, ardura;
izan ere, erantzukizun handia da Kilometroak
komunitatearen eta aurtengo aldiaren balio
guztiak ikus-entzunezko batean jaso nahi
izatea. Hasieratik ikusi dugu erronka gisa, eta
erronka hori bete bitarteko prozesuan aha-
lik eta gehien gozatzen saiatu gara. Mimo-
z eta gozamenek eginiko lan bat beti da ikus-
entzuleentzat atseginagoa. Ilusioz eta arduraz
jaso genuen proposamena, eta zirrara horiei
etsiz eta ahalik eta zuku gehien ateraz egin
diogu aurre proiektuari.

*Hasieratik izan zarete Kilometroak jaiaren an-
tolakuntzako kide. Lagungarria izan al zen bi-
deokliparen ideia garatzerakoan?*



(Iruñe Alfonso) Bideokliparen sorkun-
tza-prozesuan lagungarri izan da hirurok an-
tolakuntzako kideak izatea. Hasierako mo-
mentutik barneratu ditugu bertako asmo,
helburu eta transmititu nahi diren balioak,
eta, hori ondo ulertuta, bideokliparen kon-
takizuna modu naturalean sortu dugu. "Ko-
rri, punpa, ttak" leloak atzean duen istorio
eta esanahi guztia transmititzen ahalegindu
gara, ñabarduna eta xehetasun bakoitza ikus-
entzunezko hizkuntzara eramanez. Jaiaren
antolakuntzaren hastapenean egon izan ez
bagina, ez genukeen oinarri hori izango.

Nolako izan zen prozesua?

(Irene Larrañaga) Elkarlanean proiektu bat
aurrera eramateko izan dugun lehen auke-
ra da, eta hasieratik ohartu ginen elkarren
osagarri izango ginela, bakoitzaren soslaiak
gauza gehigarri bat eransten baitio proiektu-
ari. Prozesuan izugarri gozatu dugu, eta ko-
ronabirusaren krisia dela eta arraro samarra
izan den arren, bakoitzak bere talentutik eta
bere esperientziatik, emaitza aberatsa osatu
dugula uste dugu. Ezohiko testuinguru ba-
tean murgilduta egin dugu lan, segurtasun-
neurrietara eta 'normalitate berrira' egokituta,
baina hasieratik genuen ideia ahalik eta gehi-
en islatzen ahalegindu gara.



Urriaren 4tik
aurrera > IKUSI BIDEOKLIPA

ekinjolasjai

Azken urte hauetan, aldaketa-prozesu batean murgilduta egon da Kilometroak ekimena, eta eredu zaharretik eredu berrirako jauzia Zubimusu ikastolari ego kitu zaio. Jauzi horren prozesuan hainbat aldaketa egin behar izan ditugu, eta horietako bat Erronkari norabidea aldatzekoa izan da: Euskarajolas ekimena sortu dugu. Baina zer da Ekinjolasjai? Zein dira aldaketa horren helburuak?



Euskara eta euskal kultura ardatz harturik, kirolarekin lotuz sortutako ekimen berritzailea dugu Ekinjolasjai. Parte-hartzea, kooperazioa, talde-lana eta, batez ere, gazte eta nerabeen ahalduntzea ditu helburu ekimen berri honek. Ohikotasuneko erronka eta lehia alde batera utzi, eta kulturaren eta jolasen arteko lotura egitea izan da gure helburua, erronka beste ikuspegi batetik planteatuz eta euskararen plaza indartuz.

Mugimenduak, gorputz-adierazpenak eta jolas kooperatiboek dute protagonismoa Ekinjolasjairen barruan, baina oso argi genuen haratago joan behar genuela, euskara kultura eta hizkuntza bezala indartuz, ludikotasunaren bidez. Hori lortzeko asmoz, beste modu bateko jolas eta jokoak planteatzea da helburua.

Atzoko eta gaurko jolasek Kilometroak egunean presentzia izatea nahi genuen; Milimetroak ekimenean parte-hartze prozesu eder bat jarri genuen martxan, eta jarraipena eman nahi genion Kilometroak egunean ere. Asko dugu gure aitona-amonengandik ikasteko, eta horixe izan zen haien parte-hartzea bultzatzeko arrazoietako bat. Kolektibo horrengandik informazioa jaso, nerabeak zireneko pasarte eta jokoak bildu, horiek gaur egungo nerabe eta hurrekin praktikan jarri...

Ludikotasunarekin lotutako beste ekimen batzuk ere gauzatzeko asmoa genuen, baina COVID-19aren ondorioz bertan behera utzi behar izan ditugu; besteak beste, Mendimetroak eta Ziklometroak, ekimen eder eta oso aberasgarriak, kirola sustatzeaz gain, gure herrietako txoko ugari ezagutzeko aukera ematen baitute.

Urtero egiten diren ekimenak izanik, gutxieneko erantzun bat eman nahi izan dugu, eta, hori lortzeko asmoz, Mendimetroak.eus webgunea elikatu dugu. Bertan, Amasa-Villabona eta Zizurkileko txokoetan barrena egin daitezkeen ibilbideak aurkituko dituzue, inguruko karobi, baserri eta tontorrez gozatzeko. Zailtasun eta luzera ezberdineko ibilbideak daude, adin-tarte ezberdinetarako prestatuak, guztiok parte hartzeko eta Aiztondo bailara ezagutarazteko helburua dutenak.

Gure asmo eta helburuak argi ditugu: euskara eta euskal kultura erdigunean jarri, ludikotasuna bultzatu eta nerabe eta gazteei ahalduntzeko aukera ematea.

Gure leloak dioen bezala, [Korri](#) egin dute ikastolek urteetan zehar, [punpa](#) egiten ari gara gaurko egunez eta [ttak](#) egiten jarrai dezatela familia, ume, nerabe eta aitona-amonak guztiek.



k, p, t.

| Mundutik itxialdira |

KPT MUNDUAN

Kilometroak 2020ko pilotak, jaurti bada jaurti, ibilbide oparoa egin du. Han eta hemen ibili da punpaka: gertuko zein urruneko txokoetan; mendian nahiz hondartzan; eguzkitan zein elurretan; moztarro, dandor edota upel artean; pilotari eta korrilakarien ahotan; eta abar. Geure mugetatik at ere gozatu ederra hartu du: Amasa-Villabona-Zizurkildik Maroko, Japonia, Frantzia, Norvegia eta Australiara ere iritsi baita. Ez da, ez, makala!

Eta, zalantzarik gabe, **Korri, punpa, ttak** eginez jarraituko zukeen gustura, baldin eta koronabirusak ateak itxi izan ez balizkio.

KPT ITXIALDIAN

Jakina denez, geure pilotak mundutik etxerako bidea egin behar izan du martxoaren erdialdean. Etenaldia, dena den, emankorra izan da, norabidea finkatzeko baliagarria. Hausnarketa-aldi bati eman baitio bide.

Pauxa gure maskota ere izan da egoera horren adierazgarri. Itxialdian zehar, aire zabalean hegan egi-teari utzi eta etxeko goxotasunera itzuli behar izan



baitu. Hegalak itxi eta atsedenaldea hartu du; ez alferrik, ordea, indarberrituta atera baita.

Zeregin horretan, Zubimusuko ikasleak izan ditu laguntzaile, denen artean biziberritu egin baitute. Nork bere modura eta era askotariko materialak erabiliz, hegala sendotu dizkiote, kolorez hornitu dute eta distira berezi bat eman diote. Hegaldi berrirako prestatu dute. A ze artistak!



[Bideoak eta argazkiak ikusteko >](#)
[Sartu Kilometroak-en Facebook-ean](#)

Euskara bizia

Etorkizuneko hazia



GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN

www.gipuzkoa.eus



KILOMETROAK ASTEAK

KILOMETROAK HISTORIAN ZEHAR

IRAILAREN 28tik
URRIAREN 3ra arte
ZIZURKILGO ATXULONDO
KULTUR ARETOAN

ERAKUSKETA

"BIHARKO EUSKAL ESKOLA"

PARTE-HARTU

• EUSKAL HERRIKO

URRIAREN 1EAN, 19:00ETAN, AMASAKO KULTUR ETXEA

HITZALDI-MAHAI INGU

MENDI METROAK

GURE INGURUKO
BAZTERRAK EZAGUTZEKO
TXANGOAK

ZURE MAILAKO TXANGOAK EGIN, ARGAZKIA ATERA
EDO BIDEOA GRABATU, ETA KILOMETROAK DENDARA JOAN ZAITEZ
ZURE OPARIAREN BILA! (URRIAREN 3RA ARTE)

www.kilometroak.eus/mendimetroak

BERTSO SAIOA "ZIRTOTSAK"

BERTSOLARIAK:
AMETS ARZALLUS
MAIALEN LUJANBI O
OIHANA IGUARAN
HARITZ MUJICA
ANJEL MARI PEÑAGARIKANO
GAI-JARTZAILEA: AMAIA AGIRRE

URRIAREN 2AN, 19:00ETAN,
ZIZURKILGO INTXAUR FRONTOIAN

SARRERAK: IRIARTE ETXEAN,
AMASA KAFETEGIAN ETA KILOMETROAK.EUS WEBGUNEAN

KILOMETROAK BEZPERA

URRIAREN 3AN
VILLABONAKO
ERREBOTE PLAZAN

ANDONI
OLLOKIEGI
KONTZERTUA
20:00ETAN

"KALEAN OTSO,
ETXEAN USO"
ANTZERKIA
(PATATA TROPIKALA)
12:00ETAN

SARRERAK: IRIARTE ETXEAN,
AMASA KAFETEGIAN ETA KILOMETROAK.EUS WEBGUNEAN

URRIAK 4 KILOMETROAK 2020 ZIKLOAREN AMAIERAKO EKITALDIA

"ZER GINATEKE
GURE AMONARIK ETA AITONARIK
GABE?"

KONTZERTUA: OLAIA TORAL

SARRERAK: IRIARTE ETXEAN,
AMASA KAFETEGIAN ETA KILOMETROAK.EUS WEBGUNEAN

SEGURTASUNA ETA PREBENTZIOA

**| Prebentzioa heziketa da;
aisialdiak marko pedagogiko bat behar du. |**

Aurten, mundu mailan pairatzen ari garen koronabirusaren pandemiaren ondorioz, neurri oso zorrotzak hartu dira, horien artean konfinamendua. Edozein pertsona 30 egun baino gehiago isolamendu-egoeran egotera behartuta dagoenean, ezinbestean zenbait alortako ondorioak sufritzen hasten da (fisikoak, sozialak, emozionalak). Egoera horretatik ateratakoan, ezin da ezer gertatu ez den itxura egin eta aurrerantzean dena lehen bezala izango dela pentsatu; ezinbestean neurriak hartu behar dira.

Baina zein neurri? Guk hemen garrantzi gehien aisialdia kudeatzeko moduari emango diogu. Izan ere, gure eremu naturala Kilometroak izanik, aisialdian festa egiteko modua eta hautua aztertu nahi ditugu.

Lehenik eta behin, festak ulertzeko moduan (zer diren, zertarako; nola egin behar diren; noiz, nola, zeinekin; eta abar) gertatzen ari diren joera batzuek kezkatu egiten gaituzte, eragin zuzena izaten ari baitira ikastolen festetan ere.

Aisialdia eta denbora librea kontzeptuak abia da bizian aldatzen ari dira. Azken urte hauetan, igandea asteko jaiegun bakarra izatetik (eta zazpigarren egunean atsedeen hartu zuen), asteburua hiru egunekoa izatera igaro da (os-tirala-larunbata-igandea), eta hori aldaketa


nabarmena izan da. Eta aisialdirako tarte eta denbora gehiago izatea kontsumismoarekin lotu da, batik bat.

Festak edo festa-giroa asteburura, gau-girora, lokal espezializatueta eta espazio konkretuetara mugatzen da, batez ere. Azken urte hauetan, aisialdirako kultura-industriak antolatutako ekintzek indar handia hartu dute, eta onddoak bezala barra-barra edonon atera dira.

Badakigu festak aproposak direla egunerokoarekin hausteko, errutina eteteko, dibertitzeko, musika entzuteko, bere erritmoekin dantzan aritzeko, hartu-emanetarako, ligatzeko, erlazionatzeko, sentsazioak eta ilusioak esperimentatzeko.

Baina pasibotasunean jausiko garenak ere ez gara gu izango, ez baitugu pentsatzen "ezer egiterik ez dagoela". Konplizitatean ere ez dugu erori nahi, bihar ere egunak argitu egingo duelako.

Berriz esango dugu: zorionez, jokabide horiek ez dira gehien nabarmentzen gure festetan. Baina arrastoa uzten dutelako, behar-beharrezkoa da era honetako jokabideak festetatik aldentzea.



[Informazio gehiago > IKUSI](#)



AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala



Zizurkilgo Udala



ARRI_
STUDIOA



ENERGY of PEOPLE driving the future



mosaikoa

GURE INGURUA

Amasa-Villabona eta Zizurkil ezagutu nahi?



Amasa-Villabona eta Zizurkil Hernio mendiaren eta N-1 errepidearen artean kokatuta dagoen Aiztondo bailarako bi herri dira. Ingurukoak ez diren gipuzkoar askok maiz zeharkatzen dituzte autoz nahiz trenez, batetik bestera joateko. Lehen bistan, herri luze eta zatarrak dira ezagutzen ez dituzten askorentzat. Baina etxe altuez gain, bada zer ikusia, bai Amasa-Villabonan, bai Zizurkilen. Horrexegatik, me-

rezi du geldialdia egin eta bertako txokoetan barneratzea. Erakunde, talde, elkarte eta norbanako ugari bultzadaz sortutako herri-giro bizi eta atsegina dute. Baita naturaz inguratutako txoko ederrak eta baserri-giroko gun zabalak ere. Tartean, Amasa eta Zizurkilgo herriguneak, historiaz betetako kasko dotoreak.

Tolosaldea eta Beterri-Aiztondoko eskualdeetako zati dira bi herriok. Besteren artean, Aduna, Asteasu, Larraul, Irura, Anoeta, Tolosa edota Andoain herriak dituzte mugakide.

Ondo komunikatutako herriak dira biak ere: trenaz gain, hainbat autobus-zerbitzu ere badituzte, bai eta oinez nahiz bizikletaz gerturatzeko egokitutako bi-deak ere. Tolosa eta Andoaindik sei kilometrora dade. Donostiatik, berriz, hogeira.

Gure herrietara gerturatzeko gonbita Mendimetroak ekimenaren bidez egin nahi dizuegu.

Baina zertan datza Mendimetroak? Azken lau urteetan Gipuzkoako ikastola guztiok, ikastola bakoitzak bere inguruan, txango bat antolatu dugu mendira. Bakoitzak bere ikastolaren inguruan gauzatutako ekimen honen bidez, gure kolektiboa osatzen duen komunitatea indartu nahi izan dugu. Ez da tontorrik behar! Ikastola bakoitzak erabakitzen du erreka batera, baso batera, zelai batera edota mendiak eskaintzen duen edozein ingurutara joatea.

Honekin batera, iaz Zarautzen antolatu genuen Kilo-metroak jaiaren testuinguruan, ekimen berri bat jarri zen martxan: gure inguru eta bazterrak ezagutzera emateko mendi-txangoen proposamenak.

Aurten ere eutsi diogu ekimenari eta adinen araberrako zenbait txango prestatu ditugu (HH, LH, DBH), bakoitzak gai batekin lotuta:

Hauek dira prestatu ditugun txangoak:

- [Urkamendi mendi enblematikoa](#)
- [Aranerreka magikoa](#)
- [Basagain Burdin Aroko herrixka](#)
- [Atsedon gozagarria hartzeko Lasturreko borda](#)
- [Irizibarko karobia](#)
- [Atxulondoko burdinola](#)

Txango bakoitzaren gainean klik eginda, ibilbideari buruzko informazio osoa ikusi ahal izango duzue, kilometroak.eus webgunean.

Ibilbide hauek guztiak lasai eta taldean, lagunekin edo familian egiteko prestatuta daude.

Mendiari ezin diogu bizkarra eman, gure historia, izaera eta nortasunarekin guztiz lotuta baitago. Goazen, beraz, gure gazteekin mendira eta ikas dezagun espazio horretaz gozatzen.



KILOMETROAK IRUDITAN

'Korri, punpa, ttak' leloa zabaldu zen 2020ko
Lilatoian Donostiako kaleetan barrena.



Antzinako jolasak egunera
ekarri ziren Kilometroak Txikia
egunean.



Tanta boletoa Hernaniko
sagardotegietan barrena
ere saldu ziren.



Pauxa maskota, haur eta gaztetxoek laguna.



Amasatik behera taldean oinez
Kilometroak Txikia egunean.



Urtarrilaren amaieran
hiru mezu aireratu
ziren Zizurkilgo
Joxe Arregi plazan.



Villabonako dendan bezala,
Gipuzkoako txoko ugaritan saldu da
Kilometroak 20 arropa.



"Zure irrifarra, nire indarra" ekimenarekin
bat egin zuen Zubimusu Ikastolak
martxoko lilatoian.



Kutxa Fundazioan euskara bizi dugulako

Elkartasuna, Kultura, hezkuntza, zientzia,
ingurumena, aisia...

Era guztietako adierazpenak euskaraz bultzatzea gure
gizarte-konpromisoaren parte delako.



**Mondragon
Unibertsitatea**

LEARNING FROM REALITY

Gizarteak etorkizunean
izango dituen
erronkak ebazteko

www.mondragon.edu

**UNIBERTSITATE
GRADUAK**

**UNIBERTSITATE
MASTERRAK**

Ingeniaritza
Ekintzailletza
Enpresa Kudeaketa
Hezkuntza
Humanitateak
Komunikazioa
Kooperatibismoa
Gastronomia